

## KCD GGKEREN INFORMAZIOA

Kultura Communication y Desarrollo KCD Garapenerako Lankidetzako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, zeinaren helburua baita Komunikazio Soziala eta Kulturala sustatzea garapenerako tresna gisa.

KCD-GGKE onura publikodun izendatu dute, eta EAEko administrazio-erregistroan AS/B/14091/2008 kodea darama.

### **KCD GGKEaren oinarriak:**

1. Herritar global eta konprometituak.
2. Komunikazio demokratiko eta anitza.
3. Baztertuta egon ohi diren kolektibo eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kultural, etniko, erlijiozko, politiko, sozial eta sexu-joerazkoa.
6. Giza Eskubideak, bai norbanakoenak, bai taldeenak.
7. Naturarekiko harreman iraunkorra.
8. Bake-kultura positiboa.
9. Berdintasunean oinarritutako harremanak, bai pertsonen artean, bai herrien artean.
10. Migrazio-prozesuak gizatiartzea.

### **KULTURA eta KOMUNIKAZIOA funtsezko osagarriak dira edozein pertsona, komunitate edo herriren GARAPEN prozesuan.**

KCD GGKEak gizarte hobe baten sorreran bere alea jarri nahi du. Bertan, izatea gailentzen zaio edukitzeari, kultura eta naturaren aniztasuna daude oinarrian eta baztertuta dago edozein bortxakeria eta botere-gehiegikeria.

KCD GGKEak genero arteko berdintasunaren alde dihardu, aukera-berdintasunik ezak eragindako bidegabekeriak desagerrarazteko. KCD GGKEk premiazko deritzo txirotasuna, bereizkeria, kalteberatasuna eta gerrak bukaraztea; izan ere, milioika pertsonari eragiten diote mundu mailan, eta giza garapen iraunkorra galarazten dute.

### **KCDren lerro estrategikoa, Gizartea eraldatzeko hezkuntzan**

- 1) Kultura eta gizarte-komunikazioa sustatu eta zabaltzea, lanabes garrantzitsu eta baliotsuak diren heinean Tokiko Giza Garapena lortze aldera.
- 2) Giza eskubideen, genero-parekidetasunaren, kultura artekotasunaren eta garapen iraunkorraren zabalkunde eta promoziorako espazioak indartu eta hedatzea.
- 3) Kulturaren, komunikazioaren eta garapenaren inguruko egitasmoen eztabaida, elkartruke, hausnarketa eta sustapena garatzeko guneak indartu eta hedatzea.
- 4) Hainbat sektoretara bideratutako formazio- eta ahalduntze- guneak sortzea, batez ere emakumeek osatuta, garapenerako komunikazioan parte-hartzaile moduan.
- 5) Zinema-sektorean parekidetasuna sustatzea, batez ere gizarte-erlaketari begira egindakoan.

### **Jarduerak:**

1. Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia
2. Kultura, Komunikazio eta Garapenerako Nazioarteko Topaketa
3. Komunikazioa eta Garapenerako Eskola

Beste batzuen artean...

### **KCDren garapenerako kooperazio-egitasmoak gauzatzeko ildo estrategikoak**

- 1) Munduan zehar garapenerako komunikazioan diharduten pertsona eta erakunde sareak sustatu eta laguntzea.
- 2) Txiroitutako herrialdeetan giza eskubideen sustapenerako lanak garatzea, kultura- eta gizarte-komunikazioaren bitartez.
- 3) Genero-parekidetasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea garapenerako kulturaren bitartez.

### **Jarduerak:**

- "Mexikoko herri indigenen eta emakumeen eskubideen defentsarako komunikazio-eraldatzailerak". (Ojo de Agua, Mexiko)
- "Nikaragutatik Erdialdeko Amerikarainoko genero-indarkeria aurreikusteko komunikazio soziala" eta "Loma Verde" telebista soziala. (Fundación Luciérnaga, Nikaragua)
- "Emakume anitzak, beren eskubideak garapenerako komunikazioaren bidez defendatzen. Egiptotik mundura". El Cairoko Emakumeek egindako Nazioarteko Zinema Jaialdia, "Cairo International Women's Film Festival". Sareko ekintzak mugimenduan diren zinema-karabanetarako eta minutuko bideo-tailerak, bai Euskal Herriko eta Egiptoko zenbait herritan, bai Latinoamerikako eta arabiar herrialde batzuetan. (Klaketak Árabe, Egipto)

Beste batzuen artean...

### **Hitzarmenak:**

- Tartanga LHII (Erandio)
- Mungia BHI (Mungia)
- Ballonti BHI (Portugalete)
- Botikazar BHI (Bilbao)
- Iurreta LHII (Iurreta)
- Ibarrekolanda BHI (Bilbao)
- Artaza –Romo BHI (Leioa)
- Aixerrota BHI (Getxo)
- Nicolás Larburu LHII (Barakaldo)
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

## 1. FITXA TEKNIKOA

**Titulua:** Y otro año perdices

**Urtea:** 2013

**Iraupena:** 15 min.

**Herrialdea:** Espainia

**Hizkuntza:** gaztelania

**Azpitidatziak:** ingelesa

**Errealizazioa / Produkzioa:** Marta Díaz de Lope Díaz

**Generoa:** fikzioa

**Saila:** Giza Eskubideak



## 2. SINOPSISIA

Amonaren urtebetetzea izaki, Rosa anfitrioia dena kontrolpean duelakoan dago; izango al da, ordea, ahizpekin, senarrak koplarekin duen tema absurdoarekin eta, oro har, familiak dakarkizkion ezusteekin moldatzeko gai?

## 3. FILMA AZTERTZEN

Zein da filmean ikusi duzun tentsio unerik handieneko unea? Zure ustez, zerk eragin du?

Uste al duzu askotan gertatzen den kontua dela?

Presioarik ala jakinarazpenik ageri al da ondo eta txarto dagoenaren artean?

Sexuaren araberako rol argiak (gustuak, arropa...) identifikatzen dira?

Zergatik uste duzu hartu duela protagonistak ordura arte sekretuan zuena kontatzeko erabakia?

Zeintzuk dira idantifikatu dituzun protagonistaren aliatuak?

Zer uste duzu egin daitekeela egoera horiek eragozteko?

## 4. NORMALTASUNA, GURE GIZARTEAN: GATAZKA

Bizi garen gizarteak, gaur egun, normaltzat eta naturaltzat du pertsonak izaki sexuatuak garelara eta beste sexuak erakartzen gaituela. Horri heteroaraua deitzen zaio.

Heteroarauaren arabera, heterosexualitatea da gure sexu- eta maitasun-gogoak eta gure identitate propioa adierazteko bide bakarra. Jakintzat ematen da desiraren baitan maskulinoa eta femeninoa elkarren osagarriak direla; eta bai sexu-lehentasunak, bai pertsonen arteko erlazioak maskulino-femenino binomioarekin batera gertatu behar direla.

Sexu biologikoak anatomia definitzen du femenino, maskulino ala intersexual legez, eta, horretarako, sexu-organoak, kromosomak eta hormonak barnebiltzen ditu. Bestalde, genero-identitateak zerikusi handia du norbanakoak gizarte bakoitzak femenino eta maskulinoaren baitakoak bezala definitzen dituen ezaugarriak identifikatzeko moduarekin. Heteroarauaren baitatik espero da beti sexu biologikoak eta genero-identitateak bat egitea sozialki horiei egozten zaizkien desioekin.

Hori kontuan izanda, gizarteak erabakitzen du zelan sentitu behar garen, zelan jokatu behar dugun, zelan identifikatu behar garen eta nor gustatu behar zaigun. Arau horretatik irteteak gatazka eragiten du, eta, askotan, pertsonaren beraren baitan hasten da gatazka hori. Tamalez, tinko mantentzen da gizartean.

Gure gizarteak oso argi du emakumearen eta femeninoaren ideia, baita gizonarena eta maskulinoarena ere. Bide berean, definituta ere badu zelakoak izan beharko liratekeen gay gizonak eta emakume lesbianak. Homosexuala dena oso estereotipatuta dago beste lagunen pentsaeragatik, eta "erabat" gay denak gatazka eta bazterkeria eragiten du.

Horrela, inposatua eta tinkoa den estetika aurkitzen dugu, esperimentazioari biderik uzten ez diona. Izatez, nahasten jolasten diren lagunak identifikatu eta estigmatizatu ohi dira.

Nerabe homosexualentzat ukatze horrek eragin bortitza izan dezake: gizartearen bidez jasotzen den informazioa negatiboa denean, talde-izaeraren baitako partaide izan beharra norberaren baztertzeko bilaka daiteke eta sentimenduak eta desioak ez onartzea.

Errealitateak gazte mordoa jartzen du egoera-aukeraketaren erabakibidean: publiko egitea gizarteak ezagutu nahi ez duela sentitzen duten intimitatea, eta, hori egiteko, askotan aukeratzen den bidea errealitatea ezkatzean datza.

## JARDUERAK

### 4.1 "Konturatzeta"

Irakurri norberaren generoa identifikatzeko prozesuan gertatu daitekeen sekuentzia:

1. Ez jabetzea eta aniztasun sexualaren edota identitate desberdinen aurrean portaera intolerantea izatea.
2. Jabetzen hastea, desioetan sentimenduetan arreta jartzea, baina baztertzeta, kasurik ez egitea.
3. Jabetzea, argi izatea zer nahi den. Inori ez kontatzea, baina sekretuan sexu-esperientziak izaten hastea.
4. Erlazioak edota ohikoak-edo diren sexu-harremanak izaten hastea, baina egoera sekretuan mantentzea.
5. Ulertuko dutela uste den pertsoneri kontatzen hastea.
6. Familiako kideei edo koadrilako lagunei kontatzea.


## Eztabaidarako galderak:

Aurreko sekuentzia irakurri ondoren, taldeka eztabaida ezazue ondorengo galderak ardatz hartuta:

Uste al duzu sekuentzia hori egokia dela? - Zein egoera ezabatuko zenuke edota gehituko, zure esperientziak ala intuizioak aginduta? - Zelan konturatzen gara nor dugun gustuko? - Hori gertatutakoan zer egiten dugu? - Desberdina al da zure sexu bereko inor baduzu gustuko? - Uste al duzu hori gatazka bilakatu ohi dela? - Zelan baloratzen duzu homosexual egoeren aurrean gizarteak duen jarrera?

## 4.2 Oztopo-lasterketa:

Homosexual diren lagunei, askotan, sentimenduak onartzea, identifikatzea eta publiko egitea benetako oztopo-lasterketa bilakatzen zaie. Asma ezazu persona batek bere sexu-joera askatasunez eta era betean bizi ahal izateko proposatu dituzun oztopoak dituen istorio bat (sar ezazu nahi beste oztopo):



## 5. Definizio batzuk: aniztasuna

Bete itzazu definizioetako hutsuneak planteatzen dizkizugun kontzeptuekin:

Genero-identitatea	intersexualitatea	persona transgeneroa
Homofobia	persona transexuala	Queer teoria
las personas transgénicas o transexuales	orientación sexual	LGBT

\_\_\_\_\_ terminoak adierazten du gizaki guztiek genero bereko pertsonekin, genero desberdina dutenekin edota genero bat baino gehiago dutenekin duten erakarpen emozionala, afektibitatea eta sexualitatea bideratzeko ahalmena; baita persona horiekin erlazio kutunak eta sexualak izateko ahalmena ere. Errealitatea aztertuta, hainbat aukera daude:

- homosexuala (lesbiana, emakumezkoen kasuan; edo, gay, gizonezkoen kasuan) –
- heterosexuala (sexu desberdineko bi lagunen kasuan)

- bisexuala (afektibitatea eta sexualitatea sexu bereko kideengana zein beste sexuengana bideratutakoan).
- Beste aukera batzuk

\_\_\_\_\_ identifikatzen ditugu jaiotzetik izan duten sexu biologikoarekin bat ez datorren genero-identitateak bizi dituzten lagunak.

\_\_\_\_\_ laguna da kontrako sexudun pertsona legez jantzen edota halako bizitza izan nahi duena, beste pertsonen aurrean, jatorriz duen generoa transformatuz (maskulinoa zein femeninoa).

\_\_\_\_\_ ez da soilik antzeztzen duena, jantzi ala kontrako sexua duten pertsonak bezala bizi nahi duena, baizik eta medikuaren kontsultatik ere pasatu dena da, sentitzen duen sexuaren biologia-ezaugarriak bereganatu ahal izateko.

\_\_\_\_\_ terminoa erabiltzen da adierazteko pertsona batek jaiotzerakoan maskulino edota femenino diren ohiko definizioen barrukoa ez den sexu- ala ugaltze-anatomia duenean. Adibidez, pertsona bat jaio daiteke emakumezkoen genital itxura osoa dutenekin, baina bere barnean barrabilak izan ditzake; ala pertsona bat jaio daiteke maskulino eta femenino ohiko formen artean dauden genitaleekin. Hau da, pertsona batzuek berezkoak dituzten ezaugarri sexuak emakumezkoenak eta gizonezkoenak ematen dute aldi berean, edo ez femeninoak edo maskulinoak osoki, ez maskulinoak ezta femeninoak ere.

\_\_\_\_\_ da pertsona bakoitzak bere barne-muinean sentitzen duen generoaren norbanakoaren barne-bizipena, eta sentipen hori jaiotzean esleitutako generoarekin bat etor daiteke ala ez. Genero-identitatea ez da sexu-joera, eta transgenero lagunak heterosexual, bisexual edota homosexual legez identifika daitezke. Hortaz, transgenero-kontuak generoa ardatz duten arazotzat hartu behar dira, eta ez sexu-joerei dagozkiena.

\_\_\_\_\_ -k dioenez, pertsonen sexu-joera eta sexu- edo genero-identitatea gizartearen eraikitzeak garatutakoak dira, eta, beraz, ez da existitzen gizadian beharrezkoak diren sexu-rolak edota biologikoki definituak. Horrekin bat, kategoria unibertsaletan egindako pertsonen sailkapena baztertzen du, hala nola, "homosexual", "heterosexual", "gizon" edo "emakume"; eta gaineratu sailkapen horiek kultura-bariazio handia dutela beren barnean, eta bat bera ere ez dela besteak baino funtsezkoagoa edo naturalagoa.

\_\_\_\_\_ da pertsona lesbianak, gayak, bisexualak eta transgeneroak egoki definitzeko mekanismoa, eta sexu-komunitate horiek dituzten berdintasun-eskubideen aldeko borrokan ari den mugimendua da. Bere erabilera modernoak genero-identitatean eta sexualitatean oinarritutako kulturen aniztasunean eragin nahi du, eta heterosexuala ez den laguna identifikatzeko erabil daiteke; beren burua homosexual, bisexual edota transgenero duten lagunak identifikatzeko soilik erabili beharrean.

\_\_\_\_\_ da munduaren kontzepzioa, ideologia ala pertzepzioa, eta haren bidez homosexualitateari edo homosexual lagunei (lesbianak eta gayak) gorrotoa edota balorazio negatiboa adieraztean datza. Hala, portaera horiek gizaki guztiok ditugun duintasun eta berdintasun-eskubideen aurkakoak dira.

## 6. Diskriminazioa eta eskubideak

Amnistia International elkarteak *Yogyakartako Printzipioak* atalean barnebiltzen duen bezala, beharrezkoa da premisa batetik abiatzea: Gizaki guztiak jaiotzez libreak dira beren duintasun eta eskubideetan. Giza eskubide guztiak unibertsalak dira, bateragarriak, banaezinak eta elkarren arteko lotura dute. Sexu-joera eta genero-identitatea behar-beharrezkoak dira pertsona ororen gizatasun eta duintasuna bizirik mantendu ahal izateko, eta ez dute zertan diskriminazio edota abusurako kausa izan.

Adierazpen horren aurrean, genero-identitate edo sexu-joeraren ondorioz egindako bazterkeriak oinarri du sexu-joeran edo genero-identitateak eragindako baztertzea edo desberdintzea, eta,

ondorioz, bere emaitza da desoreka handia eta, beraz, giza eskubideen eta oinarriko askatasunen murrizketa.

Sexu-joeretan oinarritutako diskriminazioa debekatuta dago, Europar Batasuneko Hitzarmenaren 13. artikulua zehaztu bezala, zein Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Kartak bere baitan duen beste artikulua batek dioen legez. Alabaina, berdintasun bete hori lortzeko bidea urrutia da. 1991. urtera arte, Munduko Osasun erakundeak (OMS) homosexualitatea gaixotasun legez definitzen zuen, eta 2015. urtera arte indarrean izan zuten pederastia definizioaren baitan “uzki-koitoaren praktika” zegoen.

Egun indarrean den legedia gorabehera, Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Agentziak dioen legez (ingeleseztan FRA izenez ezaguna), LGBT lagunen egoera soziala arazo da, horiek guztiek, Europar Batasun osoan, diskriminazioa, intimidazioa eta jazarpena nozitzen dutelako.

Diskriminazioak bizitzan eta LGBT lagunen erabakibideetan eragiten du, gizarte-bizitzaren arlo guztietan. Diskriminazioa jasateko beldurrak LGBT lagunen “ikusezintasuna” areagotzen du, “bizirik rauteko estrategia” legez bereganatzen dute “ikusezintasun-estrategia” hori, diskriminazioari ihes egiteko asmoz. Horrek guztiak eragiten du Europar Batasunean, beste kausa batzuek eragindako diskriminazioekin alderatuta, sexu-joera, genero-identitate edota genero-adierazpenari buruzko diskriminazio-kasuen salaketa kopurua txikia izatea.

Egoera hori ere errealitatea da gazteek funtsezko duten gizarteratze-eremu gerukoetan, familia eta eskola bezalako guneetan. Eremu horietan, oraindik bizirik dago sexualitateari buruzko halako tabu modukoa, eta horrek eragiten du sexu-aniztasuna eta bere zehaztasunak ez lantzea. Hala, ikusezintasuna garatzen da kolektibo honengan eta bere arazoetan.

## JARDUERAK

### 6.1 Estereotipoen berrikusketa

Azter itzatu proposatutako estereotipoak eta saia zaitez zure gertuko eremuan baten bat identifikatzen:

Estereotipo-mota	LGBTfobia-portaera eta ekintza	Adibidea, zure inguruan
<b>Hizkuntzaren erabilera</b>	Hirugarren pertsonaren erabilera, norberarenak diren iritzi homofoboak ez onartzeko	
	Femenino edota maskulino beteak kontsideratuak ez diren portaeren aurreko biraoak eta bazterketa	
	Instituzio-deskurtoa eta erlijio-argumentuak erabiltzea, jarrera homofoboak bultzatzeko	
<b>Kokatze diskriminatzailea</b>	Ustezko heterosexualitatea	
	LGBT lagunek ezin dituzte besteok ditugun eskubide berdinak izan	
<b>Generoaren kategorizazioa</b>	Espazio publikoa heterosexuala baizik ezin da izan. Afektibitatea esparru pribatuan mugatu behar da. Besteen aurreko maitasun-erakustadiak egitea probokazioa edo errespetu falta da.	
	Emakume lesbianeiei rol maskulinoak esleitzea; eta gay gizonei rol femeninoak	
	Lanbide eta profesioen esleipena	
<b>Estigmatizazioa eta kutsatzeko beldurra</b>	Ezaugarri ezberdinduen esleipena	
	LGBT lagunak beren sexu-desioaren arabera soilik ikustea	
	LGBT lagunak ikustea muturretako jendea legez eta estigmatizatutako gaixotasunekin erlazionatutakoa	
<b>Gogozko bakartzea</b>	LGBT estima erantsiko dizuten beldurra	
	Pentsatu, igartzen ez bada, publiko egiten ez bada, ez dela arazorik	

## 7. Homosexualitatea, hedabideetan

LGBT kolektiboek trataera lantzen duten zenbait ikerketak adierazi dute ezjakintasuna eta ikusezintasuna direla estereotipo LGBTfobikoak mantentzeko eta sortzeko kausarik handienak. Egoera horrek eragina du gizartean existitzen diren tabuetan; hala, isiltasunaren oihartzunaren eta gai hauek benetan ez tratatzeko gizartearen beldurren jabe bilakatzen gara.

Alabaina, baieztapen hori ironikoa da hedabideen eta informazioa plazaratzeko modu zabalenean bizi garen honetan. Kontua da adin txikikoak mundu mediatizatu betean bizi direla, LGBT lagunen egunerokotasunaren irudi distorsionatuak etengabe helarazten dituztenak; izatez, gazteen arteko agentzia sozializatzailerak dira.

Hala, izan era ezkutuan zein agerikoan, hedabide gehienek, eta oro har ikusentzunezko munduak, estereotipo ugari helarazten dituzte. Begirada gehienak homofobak dira, LGBT kolektibo zabalari buruzko aurreiritzi eta sinplifikazioen emaitza. Egungo gizartea askatasuna eta sexualitatea zikiratuak izan diren iraganaren emaitza da; eta erotismoa, sentsualitatea, emozioak eta aniztasuna ez daude indartuta, eta soilik dira kontuan hartuak kontsumo-produktu bilakatutakoan.

Informazio-hedabideek LGBT kolektiboak plazaratzen dituen aldarrikapen-, kultura- edo politika-kontuak isilarazi ohi dituzte, eta kontu azalekoei heltzen diete, aibidez, Harrotasunaren Egunean LGBT lagunak zelaz jantzen diren. Prentsaren tratuak askotan indartu egiten du sexu-joerak soilik sexuarekiko lotura duen ideiarekin.

Fikzioaren eskaintzan LGBT errealitatearen tratamenduan ez da inolako zehaztasunik, ezta, diskriminatuta egon ohi den kolektiboan, tematikara gutxieneko errespetuaz hurbiltzeko imintziorik txikiena ageri ere. Kolektibo hau, erabat ikusezina ez denean, estereotipo ezagunen eta sinpleen mendean aurkeztua izaten da, eta horrek bere baitan duen aniztasun eta konplexutasun handia deuseztatzen du.

Testuinguru horretan, rol kritikoa hartzen duten eta *statu quo* delakoa zalantzan jartzen duten hedabideen lana azpimarratu behar da; horrela, desberdina dena eta aniztasuna normaltzen laguntzen dute.

## JARDUERAK

### 7.1 Hedabide-eskaintzaren berrikusketa

Ekarri hiru hedabide-eskaintza, LGBT kolektiboaren baitakoak izan ahal diren pertsonaiak dituztenak (mezudun adibideak izan daitezke eta adibide negatiboak edota positiboak).

Telesailak, komikiak, musika-bideoak edota edozein arte- eta komunikazio-adierazpide izan daitezke. Ekarpak sakeleko telefonoan ekar daitezke, ordenagailuan ikusteko estekan, kaieran bildutako apunteak izan daitezke edo klasekideekin sozializatzea bermatuko duen beste edozein formatutan.

Aztertu taldeka:

Estereotipoak erakusten dituzte? - Pertsona errealak ala "karikaturak" erakusten dituzte? - Zelan tratatzen dituzte pertsona horien maitasun-keinuak? Erakutsi egiten al dira? - Zelakoak dira agertzen diren gay giroak??

### 7.2 Eta, zuk, zer egin dezakezu?

Gutako guztiok gizartearen parte gara, lagun-taldeak eratzen ditugu, familia daukagu, esparru publikoan espazioak okupatzen ditugu eta, oro har, geure egiten dugu rolen aniztasuna. Hortaz, askatasunean eta berdintasunean bizi ahal izateko aldaketaren eragile ere bilaka gaitzake:

*Hausnartu:*

- Zein aldaketa uste duzu egin ditzakezula inguru bidezkoago eta solidarioagoa lortze aldera? - Zelakoa imajinatzen duzu haztea gustatuko litzazukeen gizartea? - Gizartean eta bere egituretan zer aldatu beharko litzateke zu askatasunez hazi eta garatzeko? - Uste al duzu lagundu dezakezula lortzen?



### Eragin:

- Ezagutu eta ikertu LGBT lagunen eskubideak aldarrikatzen dituzten erakunde eta elkarteak.
- Antola itzazu ikastetxean sentsibilizazio-kanpainak muralen bidez, erakusketak, zinema-debateak eta beste zenbait ekimenen bidez.
- Ezagutarazi ekintza hauek familia-esparruan eta lagunen artean.
- Parte hartu GKEetan eta LGBT biztanleen eskubideak defendatzen dituzten elkarteetan.

### 8. Intereseko webguneak

- *Estatuko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioa, FELGTB*  
<http://www.felgtb.org/>
- *Pertsona transexualen integraziorako eta defentsarako euskal elkartea, ERRESPETUZ*  
[http://errespetuz.blogspot.com/es/](http://errespetuz.blogspot.com.es/)  
[www.youtube.com/channel/UCITdOoLCxJ\\_Jv0RNL3V0udw?feature=mhee](http://www.youtube.com/channel/UCITdOoLCxJ_Jv0RNL3V0udw?feature=mhee)
- *HAGITZ*  
<http://hagitzu.blogspot.com.es/>
- *Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen elkartea, GEHITU*  
<http://gehitu.org/>
- *Rainbow proiektua: Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World*  
<http://www.rainbowproject.eu/material/es/introduction.htm>
- *ARARTEKO, Euskal gizartearen defentsa*  
[http://www.ararteko.net/contenedor.jsp?seccion=s\\_fdes\\_d4\\_v1.jsp&codbusqueda=175&language=es&codResi=1&codMenu=68](http://www.ararteko.net/contenedor.jsp?seccion=s_fdes_d4_v1.jsp&codbusqueda=175&language=es&codResi=1&codMenu=68)
- *Cyberbullying LGBT-fobikoa: intolerantzia-bide berriak*  
<https://cogameduca.files.wordpress.com/2016/03/4-ciberbullying-lgbt-fc3b3bico-informe-completo-web.pdf>
- *Europar Batasuneko herrialdeetan, sexu-joerak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioa eta homofobia.*  
[https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-hdgso-report-part2\\_es.pdf](https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-hdgso-report-part2_es.pdf)
- *ANIZTASUNA BESARKATU: Jazarpen homofobiko eta transfobikorik gabeko heziketa garatzeko proposamenak*  
[http://www.inmujer.gob.es/actualidad/NovedadesNuevas/docs/2015/Abrazar\\_la\\_diversidad.pdf](http://www.inmujer.gob.es/actualidad/NovedadesNuevas/docs/2015/Abrazar_la_diversidad.pdf)
- *YOGYAKARTA PRINTZIPIOAK: sexu-joeren eta genero-identitatearekin lotutako giza eskubideen nazioarteko legediaren ezarpena*  
<http://fundacionjuntoscontigo.org/legal/Principios%20de%20Yogyakarta.pdf>

## **IRAKASLEENTZAKO GIDA**

### **3. Filma aztertzen.**

Amonaren urtebetetze eguna baliatuz, familiako txikiak, antzezten jarraitu nahi ez duen rol bati lotuta egon denak, lesbiana dela esan die denei. Haserrea, zalantzak, sinetsi ezina, trufak eta bestelako sentimenduak eragin ditu gertukoengan.

Homosexualitatearen (eta, hedaturaz, LGTB kolektiboaren) errealitatea arakatzeko aitzakia paregabea da filma, hainbat angelutatik eta era osoan egin ere.

Era jakin batekoa izateko jaso ohi den familia-presioa, pertsonen estereotipatzea, irainak nahiz homofobia, itxurakeria nahiz komunikazio gabezia, auzi intimoak une desegokian azalarazteko erabakiak, talde barruko aliantzak, grinak eta abar dira filmak aztertzeraz garmatzen gaitako batzuk, sexu-aniztasuna gure gizartean normaltzeke dagoelako isla.

### **4. Normaltasuna gure gizartean: gatazka.**

#### **4.1 “Konturatzea”**

Nortasun propioari buruzko debatea sortzean datza, ea noiz eta nola egin behar den publiko. Ez dago erantzun zuzenik. Eskainitako galderak, eta unean sor litezkeenek, eztabaida erraztu dezakete.

#### **4.2 Oztopo-lasterketa**

Ez dago ariketa egiteko ordena jakinik ez argirik. Funtsezkoa da ez hastea oztopoak garrantziaren arabera sailkatzen, zeinek duen handiagoa. Oinarrian kontakizuna eraikitzea dago. Errealitate bakoitza desberdina da, eta pertsona bakoitzak hainbat bide egin ditzake. Kontzeptu hauei buruzko eztabaida bilatzen du ariketak:

“Naturaltasuna”: “normala” heterosexuala izatea da. Gizarteratzea inguru heteroarautzailean gertatzen da, eta jaiotzeaz batera jasotzen ditugu genero-rolak. Lehen oztopoa “normaltasunetik” atera eta geure izaera propioa bereganatzean datza. Heterosexualitatearen naturalizatzea homofobiaren lehen agerpen bortitza da.

Konfiantzazko konplizeak: ez da erraza izaten alderdi intimoak partekatzeko lagunak aurkitzea. Maiz, konfiantzazko lagunak, hurbileko jendea izanagatik, ez dira familia zuzena izaten.

Norbere desioen onarpena: gure desioez jabetutakoan, funtsezkoa da onartzea, ulertzea, maitatzea nahiz garatzea. Hau da, geure burua den moduan errespetatu egin behar dugu. Gizarteak sentitu beharko genukeena hain estu zehazten duenean, norbere burua onartzea gainditu beharreko oztopo nagusietarikoa bihurtzen da.

Zer esango duten beldur: homosexualitatea onartzeak, berandu baino lehen, inguru partikularren eta gizartearen erantzuna eragiten du, eta horri lotuta dago. Gizartean bizi garen heinean, onartuta ez izateko, mespretxatuak izateko edo eta inguruko pertsonak, maite ditugunak zapuzteko beldurra egon badago.

Estereotipoak: homosexualitateari hainbat estereotipo atxikitzen zaizkio, eta horrek zaildu egiten du inork bere burua homosexualtzat identifikatzea, agerikoa den mezu negatiboarengatik ez ezik, hain irudi mugatu eta desitxuratuarekin identifikatzea zaila delako ere bai.

Homofobia: homofobia homosexualarenganako mespretxuan datza, bazterketan eta aurrejuzkuan. Hainbat modutan azalaratzen bada ere, beti galarazten du inork bere burua sentitzen deen moduan osoki garatzea.

### **5. Zenbait definizio: aniztasuna.**

Jarduera honek xede du sexu-aniztasunari dagokion bestelako terminologia lantzea, gizatasuna osatzen duten egoera anitzak ikusarazteko. Beraz, sexualitatearen adierazpen ugari buruzko eta

hauen adierazpenen gaineko eztabaida sortu nahi da, ugaritasun hori naturala, positiboa eta gizkiarengan berezkoak direla azpimarratuz.

Homofobiaren eta LGBT-ren bi definizioen ekarpena bereziki berrikustea garrantzitsua da, gidaren elementu hauek lotzen baititu nolabait: pertsona guztien eskubideen bazterketa nahiz desparekotasuna, eta horien inguruko antolaketa eta aldarrikapena.

## Erantzunak

Sexu-joera (1)	Pertsona transgeneroak ala transexualak (2)	Pertsona transgeneroa (3)
Pertsona transexuala (4)	Intersexualitatea (5)	Sexu-nortasuna (6)
Queer teoria (7)	LGBT (8)	Homofobia (9)

## 6. Bazterketa eta eskubideak.

### 6.1 Estereotipoen berrikusketa

Jarduera honek xede du LGBT pertsonen gainean gure inguruan dauden estereotipoak identifikatzea. Taulan horietariko batzuk daude, laburki azalduta. Halaber, azaldu ez diren batzuk txertatu daitezke

Gainera, gure ingurua berrikustea proposatzen da, azaltzen direnak antzemateko gai ote garen.

Gidako atal honetan baino ageri ez diren adibide batzuk jarri ditugu, jarduera egitea errazte aldera.

Azkenik, jarduerari geure burua aztertu eta zalantzan jartzeko modu egokia deritzogu, jarrera horiek ba ote ditugun ikusteko, ez geure burua zigortzeko, errealitatea barrutik hasita zuzentzeko baizik, gutako bakoitzak bere buruari begiratzuz.

Estereotipo mota	LGBTfobia jarrera eta haren adierazpena.	Inguruko adibidea
Hizkera	Hirugarren pertsonaren erabilpena, iritzi homofoboak norberarenak ez direlako itxurak egiteko.	Nik ez dut hala uste, baina... Jendeak dio...
	Irainak eta nahikoa femenino edo maskulinoak ez diren jarreraren jazarpena.	Maritxu – Luma du – neskatxa bat dirudi
	Jarrera homofoboak babesten dituzten azalpen instituzional eta erlijiosoak.	Naturaren aurkakoa da – moralaren aurkakoa da
Jarrera baztertzaila	Ustezko heterosexualtasuna	Hori da normalena Gehienak heterosexualak gara
	LGBT pertsonak ez dituzte zertan besteen eskubide berberak izan.	Ez lukete ezkondu behar – Ez lukete adoptatu beharko Seme-alabengan pentsatuz...
	Eremu publikoak heterosexuala izan behar du. Afektibitatea eremu pribatuan azaldu behar da, besteen aurrean egitea probokazioa baita, errespetu falta.	Nabarmendu nahian dabilta Begira diezaiegun egiten dute – Ez dut zertan hori ikusi
Generoaren kategorizatzea.	Emakume lesbianeiei rol maskulinoak egozte, eta gizon gay-ei femeninoak.	Marimutil - maritxu
	Lanbide edo ogibideak egozte	Gay-ak ile-apaintzaileak dira, artistak... Lesbianak kamioi-gidariak, futbol-jokalariak...
	Ezaugarri propioak egozte	Gay-ak kontakatiluagoak dira Gay-ek gehiago zaintzen dute beren burua Lesbianak zakarragoak dira

Estigmatizazioa eta kutsatzeko beldurra	LGBT pertsonak beren sexu-desioen baitan baino ez ulertzea	Promiskuoagoak dira Biziotsu hutsak dira
	LGBT pertsonak bazterretako pertsonatzat hartzea, estigmatizatutako gaixotasunarekin lotuta	HIES-arekin lotutako jendea
	LGBT estigma egotz diezaguten beldur	Ez dut gauza arrarorik defendatzen Nire lagunak ez dira gay-ak
Borondatezko itxialdia	Pentsatzea nabaritu ezean, publiko egin ezean, ez dagoela arazorik	Ez dugu zertan erakutsi Nik ez dut heterosexuala naizela lau haizetara zabaltzen

## 7. Homosexualitatea hedabideetan.

### 7.1 Hedabideen eskaintza berrikusten

Helburua LGBT kolektiboa ageri den ikus-entzunezkoak edo sormenezko ekoizpenak antzematea da, jasotzen duten tratamendua aztertzeko. Edozein izan daiteke euskarria, hobe ikasleek hurbila sentitzen badute, interesa hurbila eta erakargarria den zerbait aztertzean datza eta.

Bilatzen dena, beraz, kontsumitzen duten horrekiko kritiko izateko esparrua eskaintzea da.

#### Ikerketa, erredakzioa eta zuzenketa

Greta Frankenfeld  
Cristina Alba Pereda  
Olaya Quintas  
Leire Pascual Basauri  
Juan Carlos Vázquez  
Joseba Villa

Esker bereziak Saioari, Hagitz-eko arduradunari, haren ideia, denbora eta energiarengatik.

Barakaldon, 2016eko abenduan.

#### Aholkularitza

IES Mungia BHI (Mungia)  
CIFP Tartanga LHII, (Erandio)  
IES Ballonti BHI (Portugalete)  
CIFP Iurreta LHII, (Iurreta)  
IES Ibarrekolanda BHI (Bilbao)  
IES Aixerrota BHI (Getxo)  
IES Artaza-Romo BHI (Leioa)  
CIFP Larburu LHII, (Barakaldo)  
IES Botikazar BHI, (Bilbao)